»Es un sector con más de dos mil personas trabajadoras, ¿qué tipo de puestos y perfiles abarca el convenio?

En el convenio de alojamientos hay una gran variedad de perfiles. Hay perfiles con carreras de turismo, gente que sabe idiomas, que trabajan atendiendo la recepción y otros puestos. Hay perfiles de limpieza o ayudante de cocina donde los requisitos son menores.



incremento
salarial de
2,5 puntos

LORPENAK

- **Incrementos** salariales anuales **2,5 puntos** por encima del IPC
- **Regulación de las vacaciones**, establecer los turnos con antelación en el calendario, y abonar como horas festivas las trabajadas de tarde los días 24 y 31 de diciembre.
- **Medidas contra la precariedad**, eliminando la categoría más baja, lo que supone para este colectivo un incremento salarial adicional.
- Mejoras en licencias, reducción de jornada anual, etc.

En ese sentido uno de los logros del convenio ha sido eliminar la categoría más baja, que conllevaba que la gente anclada en esa categoría, en un sector con gran rotación, estuviera más expuesta a los contratos precarios, empezando cada contrato desde cero. Además, nos encontramos con muchas personas migrantes, que a veces ni siquiera pueden entender lo que firman en un contrato.

»¿Por problemas de lenguaje?

Por una parte hay problemas de idioma. A veces vienen las trabajadoras con el contrato firmado y le tienes que explicar tú lo que han firmado. Por otra parte, muchas personas migrantes no conocen sus derechos, ni siquiera entienden el concepto de lo que es un convenio. También hay migrantes con perfiles de conocimiento alto. Es un sector con una gran variedad de puestos y perfiles.

»¿Por qué se ha incluido una EPSV en el convenio?

Porque vemos que con este sistema de cálculo de pensiones, de aquí a un futuro, las pensiones van a ser más precarias, por lo tanto vemos la necesidad de incorporar herramientas en los convenios para paliar esa situación.

Ingeteam (Sesma, Nafarroa)

21 greba egunen ondoren, langileek metalaren hitzarmena nabarmen hobetzea lortu zuten. Akordioaren dokumentuak sektoreko hitzarmenetik gorako soldata igoerak jaso zituen (KPI bermatuz). Horrez gainera, hobekuntza hauek lortu ziren: baja osagarriak, hobekuntzak kategorietan, antzinatasuna, ordaindutako baimenak, erretiro partzialak eta telelana arautzea.

25 urteren ostean, lantegian arauturiko lehen akordio kolektiboa izan zen. Gatazkan zehar izandako negoziazio gogor eta luzeen ondoren, ELA eta LAB sindikatuek osatutako Greba Batzordearen gehiengoak grebalariei batzar batean onartu zuen proposamena (UGTk ez zituen grebalariei babestu). Proposamen hori grebalariei % 77k berretsi zuen.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/owircvwp>



LORPENAK

- **El primer acuerdo** colectivo en la planta, tras 25 años.
- **Mejora** sustancialmente el **convenio del metal**.
- **Incrementos salariales por encima del convenio sectorial**, mejoras en complementos y categorías, antigüedad, permisos, teletrabajo, jubilaciones parciales, etc.

Barakaldoko Kiroldegia (Bizkaia)

Tras más de un año en huelga, la plantilla del Polideportivo de Barakaldo logró un acuerdo de mejora de las condiciones laborales. La propuesta negociada entre ELA y EMTESPORT, la subcontrata para la gestión del servicio, recogía mejoras salariales y una reducción de jornada. En concreto se consiguió: un aumento del salario base en 1000€ anuales en el 2025 y un 2,5% adicional para el 2027; 1992 horas de jornada para el 2026; y un acuerdo de vacantes para paliar la precariedad que sufre el sector.

Cabe destacar la actuación del Ayuntamiento de Barakaldo, que actuó sin asumir su responsabilidad como empresa principal, permitiendo a EMTESPORT todo tipo de acciones contrarias a la huelga.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/ussmuigt>



LORPENAK

- **Soldata igoerak:** oinarritzko soldata 1.000 euro igoetza 2025ean, eta % 2,5 gehiago 2027an.
- **Lanaldi murrizketak:** 1592 orduko lanaldia 2026an.
- **Lanpostu bakanteen akordioa** sektoreak pairatzen duen prekarietatea ekiditzeko.



Aritzbatalde Kiroldegia (Zarautz, Gipuzkoa)

Justiziak arrazoia eman zion ELAri, soldata-igoerei lotutako eranskina legez kanpoko zela ebatziz. Donostiako Lan Arloko 3 zenbakiko Auzitegiak adierazi zuen Zarautzko Udal Kiroldegietarako hitzarmen kolektiboaren 17. artikulua eranskina, Bpxport enpresarekin adostutakoak, ez zuela baliorik. Eranskina legez kanpoko zenez, BPXport enpresak bere gain hartu behar izan zituen 2023tik aurrera ordaintzeke zeuden soldata igoerak.



Limpieza y Cocina de Educación Pública (EAE)

Los tribunales dieron la razón a ELA en la sentencia de vacaciones rebaremadadas y no disfrutadas. Los tribunales sentenciaron que el proceso de rebaremadación de 2023/2024 incumplía el convenio. Eso supuso que a muchas personas trabajadoras, sobre todo a las que más eventualidad habían sufrido durante su vida laboral, no se les computaron los días de vacaciones generados. ELA activó más de 50 reclamaciones de afiliados y afiliadas para acabar con esta vulneración.

Berriz Egoitza (Donostia)

Hainbat hilabeteko gatazkaren ondoren, langileek aldarrikaturiko hobekuntza nagusiak lortu zituzten, besteak beste: 2027ra arteko KPlaren bermea; antzinasun-plusa handitzea; inaplikazio klausula; txanda-kontratua; adingabeak zaintzeko lanaldi murrizketarako aukera haurrak 14 urte egin arte zabaltzea; norberaren gauzetarako bi egun; eta borondatezko eszedentzietan lanpostua urtebetez gordetzea.



Grupo Guardian y Autoglas-Parter (Laudio, Araba)

El TSJPV estimó el recurso de ELA y condenó al conjunto de las empresas del Grupo Guardian y Autoglas-Parter por el cierre improcedente de Autoglas, declarando la responsabilidad solidaria de las empresas del Grupo Guardian y Grupo Autoglas-Parter Capital y la obligación de abonar a toda la plantilla de Autoglas OPCO BM S.L las indemnizaciones correspondientes al despido improcedente. El fallo estableció que “estamos ante un claro caso de fraude para los trabajadores y mala fe en el período de consultas”, confirmando lo que ELA había venido denunciando: que desde Guardian Europa se orquestó una operación para generar la situación de inactividad en Autoglas, empresa que hasta 2020 le pertenecía, para realizar una venta ficticia de la misma.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/ejzam7s8>



Elkarrizketa

Iñaki San Andres Marcilla

ERE eta Konkurtso taldeko kidea

» Era guztietako trama eta azpitramak dituen kasu bat ematen du.

Bai, benetan. Nazioarteko enpresa honek auzi honetan egin dituen ikaragarriak dira: gezurrezko salmenta, kaleratze bidegabekoa, iruzurra... denetik eta nahikoa modu lotsagabea.

» Baina oraingoan ez zaio ondo atera.

Ez, langileei eta ELAri esker, erantzun egin beharko du egin dituen bidegabekeriez. Oraingoz epaitegiek arrazoia eman digute eta kalte-ordain handiak ordainarazteko bidea zabaldu digute. Bestalde azpimarratzekoa da 2024ko Gasteizko Merkataritza Arloko Epaitegiak jarri zituela oinarri juridikoak gero Auzitegi Nagusiak 2025eko azken ebazpen garrantzitsu hau emateko, enpresa zigortuz. Bost urte egin ditugu bide honetan, eta oraindik bizirik dagoen prozesu bat da.

» Zer gehiago espero daiteke?

Alde batetik, aipaturiko kalteordainak jasotzeko aukera. 20 milioi eurotaz ari gara, beraz, kopuru ederra, baina ez opari bat, langileei zor zaizkien soldata eta kalteen ordainak baitira. Bestetik, lehenengoz, esperientzia berri gisa, fiskaltzarekin batera penaletik jotzea erabaki dugu. Ikusiko dugu hortik zer



LORPENAK

- **ELAren errekurtsua onartzea** eta, ondorioz, Guardian eta Autoglas-Parter taldeko enpresak zigortzea, kaleratze bidegabeken erantzule gisa.
- Autoglas OPCO BM SLko langile guztiei bidegabeko **kaleratzeari dagozkion kalte-ordainak ordaintzea.**
- Grupo Guardian eta Grupo Autoglas-Parter enpresen aurka sindikatuak **aurkeztutako kereila indartzea.**



ateratzen den baina helburua da enpresa boteretsu hauetako erakustea dena ez dela zilegi.

» Zer ikasi duzue prozesu honetan?

Ba, bi gauza garrantzitsu ikasi ditugu. Alde batetik, kontuz ibili behar dela multinazional hauekin, oso boteretsuak direlako eta inongo lotsarik gabe jotzen dutelako langileen kontra, legearekin eta legearen kontra. Eta beste alde batetik, ikasi dugu borrokatzeak merezi duela. Antzerako beste kasu batzuetan, langileak etxera joaten dira amore emanez, eta Fogasako kalte-ordain txikiak kobratuz. Baina kasu honetan bai langileek eta bai ELAk borrokatzea erabaki zuten eta ikusi dugu posible dela handien aurrean gauzak lortzea, borrokatuz gero. Kasu honetan bai kalte-ordainak eta bai soldatak kobratzea espero dugu. Beraz, horixe, borrokatzeak merezi duela.



Gipuzkoako eraikuntza

Aurreko hilabeteetako mobilizazioei esker, akordio berria lortu zuten eraikuntzako langileek. Hainbat hobekuntza jaso zituen hitzarmenak: soldata igoerak (KPI+0,9 lehen urtean eta KPI hurrengoetan); 8 orduko lanaldi murrizketa urtean; prekarietatearen kontrako neurrien artean, ABLE bidezko kontratazioak galerazea, bai obran bai mantentze-lanetan; modu egonkortuan dauden azpikontratetako langileek subrogazio eskubidea izatea; 50 langiletik gorako enpresetan Euskara Planak egiteko aukera; eta baita sexu jazarpenaren aurkako eta trans kolektiboen eskubideen aldeko artikulatuak ere.

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du (2025-2028). ELAk %74ko ordezkartza dauka sektorean.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/f5pkcyer>



LORPENAK

- **Subida salarial del IPC+0,9** durante el primer año y subidas del IPC en los años restantes.
- **Reducción de jornada de 8 horas.**
- **No permitir la contratación a través de ETT,** ni en obra ni en mantenimiento.
- **Derecho a la subrogación** para quienes trabajen **para subcontratas** que se encuentren de modo continuado y estable.
- Planes de euskera, protocolo de Acoso Sexual y derechos para el colectivo trans.

Comercio Textil Araba

Tras haber establecido un convenio de cuatro años para evitar la aplicación del convenio estatal, se procedió a negociar las subidas salariales para los años 2025-2027. Como consecuencia, se lograron subidas salariales vinculadas al IPC (IPC + 0,6 % para el año 2025 e IPC + 0,5% para el año 2026). También otras reivindicaciones, como librar la tarde del Sábado de Carnaval. En cuanto a la prima por objetivos, se cambió la redacción para garantizar su abono y quedó eliminada la vinculación exclusiva a alcanzar los objetivos marcados por las diferentes empresas. Con la firma del convenio, las empresas abonarían un 1% sobre la venta real si se alcanza el mismo dato de venta del mismo mes del año pasado, y el 2% real si se alcanza el objetivo marcado.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/piwlacsn>



LORPENAK

- **KPIari lotutako soldata igoerak** lortu dira: 2025erako KPI + % 0,6 eta 2026rako KPI + % 0,5.
- Inauterietako larunbat arratsaldea libratzea.
- **Helburuen araberako sari bat hartzea** (enpresek ezarritako helburuak lortzeko lotura eskusiboa hitzarmenetik ezabatuz).

Caher Servicios AL marketing (Oion, Araba)

Después de años sufriendo las precarias condiciones del convenio Estatal de Reposición, y tras anunciar el inicio de movilizaciones en defensa de unas condiciones dignas, la plantilla logró el primer convenio de empresa, que recogía importantes mejoras laborales, entre las que destacan la homologación salarial con el Convenio del Comercio Alimentación de Araba, pasando de los 13.433,00 euros anuales del Convenio Estatal de Reposición a 17.471,25 euros anuales. Además se consiguieron reducción de jornada (72 horas anuales), nuevo complemento de antigüedad, pluses, contrato relevo, etc.

Caher Servicios AL marketing presta el servicio de reposición y marketing de los productos de Coca Cola y Danone en los supermercados de toda Araba. El nuevo convenio tendrá tres años de vigencia (2025, 2026 y 2027).

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/wzepfba5>




LORPENAK

- **Lehen enpresa-hitzarmena** egitea.
- **Soldaten homologazioa**, Estatuko Birjarpen Hitzarmeneko 13.433,00 euroetatik Arabako Elikagaien Merkataritzako Hitzarmeneko 17.471,25 euroetara igaroz.
- **72 orduko lanaldi-murrizketa urtean** (9 lanegun gutxiago).
- **Txanda-kontratua**, eskatzen duen eta baldintzak betetzen dituen edozein langilerentzat.
- Beste hainbat hobekuntza eta osagarri (antzinatasuna, bajak, eszedentziak, eta abar).

COVID Iraunkorra

Zaintzaile baten ezintasun iraunkorrerako pentsioa %30 handitzea lortu zuten ELAko zerbitzu juridikoek. EAEko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak pentsio horren gaineko %30eko Prestazio Errekargua aitortu zion Erretereriako Jesusen Bihotza egoitzako zaintzaile bati, COVID Iraunkorra hartu baitzuen bere lanpostuan, segurtasun neurriak ez zirela hartu ebatzita.



Osasunbidea

Una trabajadora de Osasunbidea, que perdió su trabajo con el proceso de estabilización, ganó en el juzgado su derecho a hacerse fija. ELA, que represento a la demandante, declaró que la sentencia podía abrir una puerta a mas trabajadoras y trabajadores de la Administración que estuvieran en la misma situación de contratación temporal.



Pastelerías y Panaderías Lemona (Bizkaia)

Una falsa autónoma ganó una sentencia en un proceso individual, en el que ELA consiguió demostrar que existía un grupo laboral con JUANCIPRI SL Y BALDELLOU SA, y que por lo tanto había relación laboral. La empresa fue sentenciada a abonar la improcedencia y los salarios a la falsa autónoma.

AMVISA - Gasteizko Udal Urak

Lan Ikuskaritzak isuna jarri zion Amvisa-Gasteizko Udalari grebarako eskubidea urratzeagatik. Zehazki, Lan Ikuskaritzak adierazi zuen enpresak greban zeuden langileak ordezkatu zituela legez kanpo, oinarritzko eskubide hori urratuz. Ondoren, ELAk auzia epaitegietan sakontzea erabaki zuen, Gasteizko Udalak berriro modu horretan joka ez zezan.

Ramondin Cápsulas (Guardia, Araba)



La plantilla ratificó el acuerdo que el Comité de Empresa negoció con la empresa para conseguir subidas salariales, por lo que se desconvocó la huelga. El acuerdo recogió, para los años 2024 y 2025, las subidas salariales del 3% fijadas en el convenio estatal de Metalgráficas, que hasta entonces la dirección se negaba a aplicar, argumentando una supuesta falta de liquidez.

Arcelor Mittal (Berriobeiti, Nafarroa)

Langileak akordio batera iritsi ziren, 17 egun greban egin ondoren. Hitzarmenak 2024-2027 tarterako indarraldia izatea adostu zuten, hobekuntzen artean jaso zituztelarik KPIa bermatuko duten igoerak eta lanaldia lau ordutan murriztea.




Tremefil-Izaguirre (Usurbil, Gipuzkoa)

Sei eguneko lanuztearen ondoren eta greba mugagabearen atarian lortu zuten akordioa Usurbilgo enpresan. Akordioan bi aldarrikapen nagusi lortu ziren: KPItik gorako soldata igoerak (2025erako KPI eta 2026rako KPI + %1) eta langile guztientzako txanda-kontratua bermatzea. Puntu garrantzitsua zen txanda-kontratuarena, lana bermatzeko, 10 urtean 10 lanpostu desagertu baitziren lantokian, 55etik 45 langilera igarota, lan erreleborik ez zegoelako.




ELA, LAB, Steilas, Hiru eta Etxaldek greba orokorra deitu dugu 2026ko martxoaren 17rako. Helburua Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) propioa lortzea da. Deialdiak Gasteizko eta Iruñeko Parlamentuek egindako eraso antidemokratikoari erantzuten dio. Bi parlamentuek ez dute tramitera onartu ere egin Madrildik inposatzen zaigun miseriazko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata hobetuko duen LGS propio baten eztabaida. Hala ere, borroka politiko horrek bizirik dirau.



**SORTUTAKO
ABERASTASUNA**
2008-2024 BPG
+%13.2

**ENPRESEN
IRABAZIAK**

**LANGILE
KLASEA**
BIZI BALDINTZAK



LAN ERRENTAK
2008-2024
- **1.933 milioi**



EROSAHALMENA
Inflazioa VS Soldatak
- **14.000 milioi**



ETXEBITIZA
%30 - %50
garestiago

POSIBLE DA!

Langileen Estatutuaren 27. artikulua aldatu
gehiengo politiko baten bitartez




Zergatik 1.500€ (LGS)?

Madriletik ezartzen diguten LGSrekin
(1.221€) ezin delako bizi

¿Por qué un SMI de 1.500 euros?

Porque con el SMI que nos imponen
desde Madrid (1.221€) no se puede vivir



2000. urteaz geroztik sortutako
aberastasuna honela banatu da:

**%1 aberatsenak aberastasunaren
%41 bereganatu du;**

%50 pobreenak %1 bakarrik

**El 1% más rico acaparó el 41%
de la riqueza** creada desde el año 2000,
el 50% más pobre solo el 1%


ELA, LAB, Steilas, Hiru y Etxalde hemos convocado una huelga para el 17 de marzo del 2026. El objetivo es lograr un Salario Mínimo Interprofesional propio que se fije en la CAPV y Navarra. Esta huelga responde a la agresión antidemocrática realizada por los Parlamentos de Gasteiz e Iruña. Ambos Parlamentos ni siquiera han admitido a trámite el debate de un SMI propio que mejore el SMI de miseria que se nos impone desde Madrid. Sin embargo, esa pelea política sigue abierta.



RIQUEZA CREADA
2008-2024 PIB
+13.2%

BENEFICIOS
EMPRESARIALES

CONDICIONES DE LA **CLASE** **TRABAJADORA**



RENTAS DE TRABAJO
2008-2024
- **1.933 millones**



PODER ADQUISITIVO
Inflación VS Salarios
- **14.000 millones**



VIVIENDA
30% - 50%
más cara



¡ES POSIBLE!

Cambiar el artículo 27 del Estatuto de los Trabajadores logrando una mayoría política para ello



Euskal
Herria



Frantziar
estatua



Alemania

Hego Euskal Herriko antzeko
Barne Produktu Gordina duten
beste herrialde batzuetako
LGSetara hurbilduko gintuzke:
Alemania 2.054€, Frantziar estatua 1.767€

Nos acercaría a los SMI de otros países
con similar PIB al nuestro: Alemania 2.054€,
estado francés 1.767€



**Refuerza la soberanía
y el autogobierno**
Hemen lan egin, hemen erabaki!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Donostiako Udalaren Gizarte Ekintza

Mobilizazio egun askoren, lau eguneko lanuztearen eta hamabi eguneko grebaren ondoren, Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Batzordeak aurreakordioa lortu zuen Udalarekin, aldarrikapen nagusi gehienak jasota. Urte hasieran hasi zen gatazka, lan kargen igoerei aurre egiteko asmoarekin. Langileek eskatzen zuten profesionalen araberrako arreta ratioa murriztea eta plantilla handitzea eremu guztietan (administrazioa, gizarte langileak, hezkuntza, psikologia, talde teknikoa...). Aurreakordioari esker, 2027ko urtarrilaren baterako, 16 langile berri kontratatuko dira gizarte langilearen, administrariaren eta psikologoaren kategorietan.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/dfcawncu>



16
nuevas
trabajadoras

LORPENAK

- **Revertir las elevadas cargas de trabajo**, reduciendo el ratio de atención por profesionales.
- **Aumentar la plantilla:** para el 1 de enero de 2027 se contratarán **16 nuevas trabajadoras** en las categorías de trabajadora social, administrativa y psicóloga.

Elkarrietzeta

Txomin Lasa Ormaetxea

Donostiako Udal-foruko arduraduna

» **Beste gatazka batzuetan grebak soldata igoerekin lotuta egoten dira. Kasu honetan, ordea, aldarrikapena bestelakoa izan da: plantilla handitzea. Azalduko diguzu zergatia?**

Bai, borroka hau berezia izan da zentzu horretan. Titular bezala esan dezakegu langileek Donostiako udaletxeak hartu ez duen ardura hartu dutela beraien gain, donostiarron mesedetan. COVIDaren ondoren, gizarte zerbitzuetako beharrak asko handitu dira eta langileen eskarien aurrean udalak ez zuen kontratazio berririk aurreikusten. Honen aurrean langileak ELAko atal sindikalararekin batzartzen hasi ziren.

» **Behin aldarrikapenak egiten hasita, zergatik luzatu zen negoziazioa?**

Hasiera batean udalak ez zuelako kolektiboa errespetatzen. Kontuan eduki behar da Donostiako udalean ez dela kolektibo baten grebarik egin. Horregatik aitzindaria izan da gatazka hau. Behin lehenengo lanuzteak eta grebak eginda negoziazio mahaia eratu zen, greba batzorde batekin.

» **Nola lortu zen akordioa?**

Lau lanuzteren eta 12 greba egunen ondorioz. Akordiorako indarra greba egunetan langileen ia %100



ateratzeak eman zuen. Kolektiboa erabat ahaldundu zen prozesuan eta udalak akordioaren beharra ikusi zuen gatazkari irtenbidea emateko.

» **Zerbait nabarmendu nahi duzu akordioarena?**

Edukien aldetik: 16 lanpostu berri, lan poltsak, administrarien balorazioa, zerbitzuaren hobekuntzarako komisioa, inpaktu emozionaleko protokoloa, instalazio hobekuntzak... Formen aldetik: erakundeen aitzakiekin amaitzea lortu dugu, borondate politikoa behartuz grebari esker. Madril lek erabakitzen duen aitzakia apurtu dugu.

» **Zerbait gehiago?**

Aitortza adierazi nahi diet prozesua eraman duten atal sindikaleko (Sonia, Marijo eta "Iñakiak") gure delegatu (Josune) eta langile guztiei. Erabat eredugarria izan da egindako borroka eta edukitako batasuna prozesuan zehar. Borrokak beti merezi du!



ADSIS (Gasteiz)

Lan baldintzak nabarmen hobetzeko akordioa lortu zuen ADSISeko Lan Batzordeak enpresarekin. Negoziazioa hainbat hilabetez luzatu zen arren, eta delegatuen inplikazio handia eskatu zuen arren, azkenean lortu zuten 2025-2026 tarterako baldintzak hobetzea.

Soldatei dagokienez, %20ko igoera lortu zuten Lanbide Heziketari lotuta ez dagoen kolektiboarentzat eta %29ko igoera Lanbide Heziketako kolektiboarentzat. Horrez gainera, beste hainbat hobekuntza lortu zituzten: 108 ordu gutxiago urteko lanaldian; partzialtasuna mugatzeko neurri zehatzak; bi langile berri kontratatzea; inplikazio klausula; prestakuntza hobetzea eta abar.

Enpresak 35 langile ditu eta esku-hartze eta ekimen sozialaren eremuan dihardu.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/yvtay9ir>



LORPENAK

- **Subida salarial: 20%** para el colectivo no vinculado a Formación Profesional y **29%** para el colectivo de Formación Profesional, en dos años.
- **Disminución de 108 horas** en la jornada anual.
- Medidas concretas para limitar la parcialidad en la empresa.
- **Contratación de 2 personas** trabajadoras.
- Cláusula de inaplicación.

Tubos Reunidos Premium Threads (Langraiz Oka, Araba)



Los tribunales anulaban el ERTE y condenaban a la empresa por vulnerar el derecho a la huelga. La jueza señaló en su fallo que el ERTE era declarado nulo, debiendo la empresa proceder a la reposición de los salarios dejados de percibir por la plantilla. Así mismo, condenó a la empresa a indemnizar con 45.000€ euros al sindicato ELA en concepto de daños y perjuicios.

Ésta era la segunda vez que la empresa recibía una sentencia similar en menos de un año, ya que fue condenada, en el marco de una huelga, por sustituir trabajadores con personal que no había secundado las movilizaciones, en una sentencia en la que también se le condenaba a indemnizar al sindicato ELA con 50.000€ por vulneración de derecho fundamental.

LORPENAK

- Enpresako ABLE baliogabetzea eta ABLE horren denboraldian **langileek jaso ez zituzten soldatak ordainaraztea.**
- **Grebarako eskubidea** urratzeagatik zigortzea.
- **ELA sindikatuari 45.000 euroko kalte-ordaina** ematea.

Enpresaren aurkako bigarren kondena izan zen, urte betean, lehenago ere grebako langileak ordezkatzeagatik kondenatu baitzuten, eta orduan ere ELA sindikatuari 50.000 euroko kalte-ordaina ematera zigortu baitzuten enpresa, oinarritzko eskubidea urratzeagatik.

<https://labur.eus/9gsb68u1>



Oñatiko Udala (Gipuzkoa)

Epaitegiek Oñatiko udala zigortu zuten langile baten osotasun fisikorako eskubidea urratzeagatik. Eibarko Lan Arloko Epaitegi Bakarrak bi eparen bidez zigortu zuen udala.

Lehenengo epaiak argudiatu zuen 2022 eta 2024 urteen artean langileak harturiko lau bajak produktu kimikoekin kontaktua izateagatik izan zirela, lanpostuaren egokitzapen faltagatik sortutako dermatitisaren ondorioz.

Bigarren epaiak ondorioztatu zuen langilearen antsietate bajaren kausa izan zela langileak ikusten zuela Oñatiko Udalak ez zuela neurririk hartzen bere osasuna bermatzeko, belar-sastrakak garbitzeko lanak egitera bidaltzen baitzuen, alergia eragiten zioten produktu kimikoen eraginpean lan egitera behartuz.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/mf3bsh6d>



LORPENAK

- **Dos sentencias contra el Ayuntamiento de Oñati**, por vulnerar el Derecho a la Integridad Física de un trabajador.
- Una **primera sentencia** reconoció que las bajas sufridas por el trabajador se debieron a una **inadecuada adaptación de su puesto de trabajo**.
- Una **segunda sentencia** argumentó que la última baja del trabajador, con diagnóstico de trastorno de ansiedad no especificado, se debió al deterioro psicológico que le supuso el ver cómo le seguían mandando a realizar **tareas que le causaban alergia**.

Metro Bilbao

La plantilla alcanzó un preacuerdo con mejoras importantes para todos los colectivos, sin distinción: incrementos salariales por encima del IPC; mejora de pluses; aumento de la contratación; reducción de jornada a partir de los 59 años; más días de libre disposición; contrato relevo; mejora de la organización de jornadas y plantilla, etc.

El acuerdo regulará las condiciones de más de 900 personas trabajadoras. El convenio es un ejemplo de que se puede recuperar el poder adquisitivo perdido en el anterior convenio, que ELA no suscribió, y que generó diferencias entre los distintos colectivos. Con el nuevo convenio se consiguió mejorar las condiciones de todos los colectivos que forman la plantilla.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/k3y5iizs>



LORPENAK

- Batez ere, aurreko hitzarmenean galdutako **erosteko ahalmena berreskuratzea, KPitik gorako soldata igoerekin**.
- Talde guztien **lan baldintzak hobetzea** (aurreko hitzarmenak taldeen arteko bereizketak ekarri baitzituen).
- Plusak, kontratazio gehiago egitea, egun libre gehiago, errelebo-kontratua, lanorduen antolaketa hobea, eta abar.



Guraso bakarreko familiak

Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak onartu egin zuen ELAk jarritako erreklamazioa, zeinak guraso bakarreko familiek jasaten duten diskriminazioa salatzen baitzuen.

Espainiako Gobernuak ukatu egiten zuen horrelako diskriminaziorik zegoenik eta, halaber, ukatu egiten zion ELAri horrelako erreklamazio bat egiteko legitimitatea. Erreklamazioa jarri ondoren, guraso bakarreko familien baimena aldatu egin zen Espainiako Estatuan, Konstituzio Auzitegiak 26 astera luzatu baitzuen. Baina ELAk orduan adierazi zuen bezala, diskriminatzailea izaten jarraitzen zuen, ez baitzuen berdintzen egunerokoan arrakala jasaten zuten guraso bakarreko familien babes egoera. Azkenean, Eskubide Sozialen Europako Batzordeak onartu egin zuen ELAk jarritako erreklamazioa, eta sindikatuak aurkezturiko urraketak aztertzea erabaki zuen.



Informazio gehiago:
<https://labur.eus/15ofwley>



LORPENAK

- **Admisión a trámite de la reclamación de ELA** sobre la discriminación que sufren en el Estado español las familias monoparentales.
- Reconocimiento de que ELA tiene legitimidad para interponer la reclamación (legitimidad que el Estado Español negaba).
- Decisión de **examinar las vulneraciones fundamentadas por ELA.**

¿Por qué afiliarse a ELA?

ELA es la organización sindical vasca más fuerte, con más de 104.000 personas afiliadas y más de 9.800 representantes en las empresas. Esto supone más del 36% de la representación sindical en el conjunto de Hego Euskal Herria (CAPV y Navarra).

Solo en una organización como ELA se puede negociar de tú a tú con las empresas y obtener mejores condiciones. Nadie tiene más fuerza.

ELA cuenta con la red más amplia para atender a su afiliación, con 43 locales repartidos por toda la geografía vasca. Además, ELA edita la revista ALDA (que con una tirada de más de 104.000 ejemplares, es la revista vasca de mayor difusión) y otras publicaciones escritas (Landeia) digitales y audiovisuales para mantener informada a la afiliación. Nadie está más cerca de ti.

En ELA trabajan casi 100 personas en unos servicios jurídicos que el año pasado gestionaron **9.951** expedientes, lo que supone más de un 37% de los casos que se tramitan cada año en el ámbito laboral vasco. Nadie te protege más y mejor.



Ingeteam Converters (Ortuella, Bizkaia)

La plantilla desconvocó la huelga indefinida, que ya llevaba casi tres semanas, tras lograr un gran acuerdo. Se consiguieron incrementos salariales por encima del 11% y reducción de jornada, entre otras mejoras. En la planta, situada en Ortuella, trabajan un total de 283 personas, y su comité está compuesto por 9 representantes de ELA.



Ipeme (Zarautz, Gipuzkoa)

Zarauzko Ipeme enpresako langileek Gipuzkoako Metalaren hitzarmena aplikatzea lortu zuten. Ordura arte Gipuzkoako Metalaren Merkataritzaren hitzarmenak arautzen zituen lan baldintzak. Hobekuntzen artean nabarmentzekoak izan ziren: lanorduen murrizketa (28 ordu gutxiago urtean); antzinasun plusa; eta KPlaren araberako soldata igoera; aurreko hitzarmeneko % 100eko osagarria mantentzea ere lortu zuten.



ATDL Logística (Etxebarri, Bizkaia)

ATDL Logística y el Comité de huelga firmaron un acuerdo que estabilizaba el empleo de ocho personas, dando por terminada la huelga. El objetivo de la huelga era poner fin al abuso de contratación vía ETT que venía realizando la empresa ATDL. Se consiguió así estabilizar el empleo para ocho personas, que en caso contrario, y tras realizar 18 meses de contrato en la ETT, hubieran perdido su empleo (el modus operandi habitual en ATDL).



Bellota Taldea (Legazpi, Gipuzkoa)

Enpresa aldi baterako lan erregulazio espedienteen zegoen arren, langileek KPltik gorako igoerak lortu zituzten hitzarmen berrian. Horrez gainera, hainbat hobekuntza lortu zuten: %10eko igoera asteburuetako plusean, errelebo kontratua mantentzea; kontziliazioa hobetzeko neurriak; prebentziorako fisioterapia zerbitzu subentzionatua, eta abar. Kontuan hartzekoa da langileek, aurretik ere, aldarrikapen ugari lortu izan dutela enpresa honetan, 35 orduko lanaldia esate baterako.



Vitaldent, Paseo de la Florida (Gasteiz)

Tras meses de negociación, y cuatro jornadas de huelga las trabajadoras de la *Clínica Dental Vitaldent* del Paseo de la Florida consiguieron un acuerdo que recogía, entre otras: subidas salariales ligadas al IPC; una bajada de más de 100 horas en la jornada anual; un calendario laboral; mejoras en licencias y permisos; y garantías de aplicación y blindaje ante cambios sustanciales de las condiciones laborales. Hasta la firma del acuerdo las diez trabajadoras de la plantilla eran precarias.



Bestseller España - Jack&Jones (Gipuzkoa)

Justiziak ebatzi zuen Bestseller Españak greba eskubidea urratu zuela Gipuzkoako bi dendatan eta, ondorioz, kalte-ordainak eman beharko zizkiela bai langileei eta baita ELA sindikatuari ere. Donostiako Lan Arloko 1. zenbakiko Epaitegiak ebatzi zuen enpresa horrek, Jack&Jones marka baliatuta, Donostiako Garberan eta Usurbileko Urbilen dituen dendetan, greba eskubidea urratu ziela langileei hitzarmenaren estatualizazioaren aurka egindako deialdian.



Euskotren

ELA firmó un preacuerdo del convenio colectivo que afecta a 1.300 personas trabajadoras del tranvía, Bizkaibus y Lurraldebus, líneas de tren Hendaia-Lezama y Zornotza-Bermeo y el Funicular de la Reineta. Se consiguió garantizar el poder adquisitivo, incorporar aumentos en pluses y reducir la jornada a partir de 57 años, entre otras muchas mejoras.



Ugaoko Lorezain eta Garbitzaileak (Bizkaia)

Ugaoko loretzaintzako eta garbiketako langileek hitzarmen kolektibo berria lortu zuten, 54 eguneko grebaren ondoren. Hainbat hobekuntza lortu zituzten hitzarmenaren bidez: % 16,2ko soldata igoera hitzarmeneko lau urteetan (2025-2028), norberaren gauzetarako egun bat, lan orduetan batzarrak egiteko 6 ordu urtean, eta lanaldi partziala dutenenei lanaldi osoko kontratua egitea

Tienda Oficial de Osasuna (Nafarroa)

La plantilla de Macron Retail, mejoró sustancialmente sus condiciones tras convocar huelga. El convenio conseguido supone un incremento salarial de entre el 10 y el 12% y una reducción de la jornada anual de trabajo de 86 horas. La plantilla intentó en vano negociar un convenio de empresa durante varios meses, hasta que decidió convocar huelga. El convenio tienes tres años de vigencia (2025-2027) y recoge, además, otras mejoras: reconocimiento de la antigüedad; limitación de las horas complementarias al mínimo legal; abono de horas extras y complementarias; reconocimiento de categorías profesionales; calendario laboral con horarios y turnos, etc.

La plantilla de Macron Retail, que es la empresa que gestiona la tienda oficial de Osasuna, está formada por siete personas.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/7cenruxp>



Elkarriaketa

Olaia Alonso Casajus

(ELA-Zerbitzuak, Iruña)

» Zergatik luzatu zen negoziazioa hainbeste hilabetez?

Enpresak ez zuelako mahaiari eseri nahi. Asesoriarekin konpontzeko esaten ziguten, baina asesoriak ez du ezer erabakitzen. Nik uste dut ez daudela ohituta sindikatuekin negoziatzen. Esango nuke beraien lehen greba izan zela, nahiz eta Macron Italiako multinazional bat den.

» Baina behin greba deitu zenean, enpresaren jarrera aldatu egin zen, ez?

Neurri batean. Greba deialdia jasota, enpresak mahaiari esertzea erabaki zuen baina jarrera itxi batekin, negoziatzeko asmorik gabe. Greba egunaren bezperan, ordea, hitzarmena sinatuta bidali ziguten. Ez ziguten ezta deitu ere, sinatuko zutela esateko.

» Langileek bazuten aurretik hitzarmenik?

Ez. Langileen Estatutua baino ez. Horrek hainbat arazo zekarkien langileei. Adibidez, merkataritzako ordutegian zabalteaz gainera, partidu egunetan ere irekitzen dute Osasunaren denda eta hor ordu extra pilo bat sortzen zen urtean zehar, inork kontrolatu gabe.



LORPENAK

- **Soldata igoerak:** 2025erako % 10 eta 12 artekoa, eta 2026-2027rako Nafarroako KPIaren arabera.
- **Antzinatasuna** aitortzea, **laurteko bakoitzean % 5eko igoera** gehigarriekin.
- **Urteko lanaldia 86 ordu murriztea.**
- **Bestelako hobekuntzak:** funtzioen arabera lanbide-kategoriak aitortzea; ordu osagarriak legeko gutxienez mugatzea; urteko lan-egutegia izatea, ordutegi eta txandak zehaztuta, eta abar.




» Garrantzitsua da, beraz, egutegi bat edukitzea?

Bai, egutegi bat finkatuz gero, lanegunak hobeto antolatzen dira langile guztientzat eta kontratu partziala duten langileek ordu gehiagoko kontratuak lortzen dituzte. Azkenean, langile guztien lan baldintzak hobetzen dira.

» Zer nabarmenduko zenuke hitzarmen honetatik?

Badago nabarmenduko nukeen gai bat: langile kopuru txikia izan arren, kasu honetan 8, eta aurrean duzuna multinazional bat izan arren, posible dela lan baldintzak hobetzea eta aldarrikapenak lortzea, adibidez soldatak, batz bestea, %10 igotzea. Garrantzitsua da langile kopuru txikia izan arren, borrokarako aukerak dituzela sinestea. Lorpen honek horrela erakusten digu. Antolatuz gero, eta borrokatuz gero, baldintzak hobetu daitezke.

2025 diru-sarrerak ingresos



Zergatik da ELA hain eraginkorra?

Sindikatu greba-kutxari esker, ELAk **1.495 euro** (ohiko kalte ordaina, gehienez norberaren ohiko soldataren mugarekin) ordaintzen dizkie afiliatu guztiei hilean, grebak dirauen bitartean, hau da, soldata jasotzen ez duten bitartean. Gatazkak irabazteko eta akordio onak sinatzeko baliabide erabakigarria da.

2025ean, **3.911 pertsonak** baliatu zuten greba-kutxa. ELAk afiliazio kuoten bidez jasotzen dituen lau eurotik bat greba-kutxara bideratzen du. Sindikatuaren aurrekontuaren %90a diru sarrera propioak dira. Beste modu batera esanda, autonomia da.

¿Por qué ELA es tan eficaz?

La caja de resistencia del sindicato abona a todas las personas afiliadas en huelga **1.495 euros** (indemnización ordinaria, con el tope de su sueldo habitual) al mes mientras no perciban su salario, un recurso crucial para ganar conflictos y firmar buenos acuerdos.

Solo en 2025, **3.911 personas** se beneficiaron de la caja de resistencia, una herramienta a la que ELA destina uno de cada cuatro euros de lo ingresado por cuotas de afiliación. Los ingresos propios suponen el 90% del presupuesto de ELA. Esa es la verdadera garantía de la autonomía del sindicato.

Ingeteam Power Electronics (Zamudio, Bizkaia)

13 eguneko grebaren ostean, langileek hitzarmen kolektiboa berritzeko akordioa lortu zuten, baldintzak nabarmen hobetuz. Soldatei dagokionez, KPI baino askoz igoera handiagoak lortu zituzten: 2025rako, 2.000 euroko soldata igoera finkoa, gehi KPI; 2026rako, 350 euroko igoera finkoa, gehi KPI + %1; 2027rako, KPI + %1,5eko igoera. Horrez gainera, hainbat hobekuntza jaso zuten hitzarmen berrian: lanaldi zatituko urteko orduak 1.688 izatea; ordaindutako baimen osagarriak, urtez urte progresiboki handitzen joango direnak; txandakako lanaren eta gaueko lanaren plusak; lan telematikoa zabaltzea; medikuarengana joateko baimenak; eta beste gizarte-eskubide batzuk hobetzea.

Informazio gehiago:
<https://labur.eus/zeuj68xn>



LORPENAK

- **Mejoras salariales, muy superiores al IPC:** para el 2025, incremento salarial consolidado de 2.000 euros, más el IPC; para el 2026, subida de 350 euros consolidados más IPC +1%; para el 2027, subida del IPC +1,5%.
- **Igualar la jornada de los trabajadores** a jornada partida a 1.688 horas anuales.
- Permisos retribuidos adicionales, mejoras en los pluses de nocturnidad y turnicidad, ampliación del teletrabajo, y mejoras en los permisos para asistencia médica, y otras mejoras.

Elkarrizketa

David Crego Cordon

Delegado Sindical

» ¿Cómo fueron las dos semanas de huelga y negociaciones?

